



Polo anitzeko globalizazioa

Abuztuaren amaieran BRICS akronimoaren baitan batzen diren herrialdeak (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika) gailurra egin zuten Johannesburgon. Bertan hartutako erabakien artean 2024an *elkartea* beste sei herrialdetara zabaltzeko ekimena izan da entzutetsuena. Saudi Arabia, Argentina, Egipto, Arabiar Emirerri Batuak, Etiopia eta Iran 2024an batzen direnean, hamaika kideko taldeak munduko biztanlearen %46 eta Barne Produktu Gordinarean %37 ordezkatuko du.

Hedapen hori etorkizuneko hedapen gehigarrien hasiera izan daiteke eta blokearen beste fase bat irudikatzen du. Elkarteko herrialde indartsuenak diren Txinak eta Errusiak Mendebaldeko hegemonia politikoaren eta ekonomikoaren aurrean benetako alternatiba eraginkorra eraiki nahi dute, Hegoalde Globalaren lider gisa aurkeztuta. Munduko eredu orekatuagoa eta bidezkoagoa lortzeko ahalegin moduan aurkezten dute blokearen hedapena. Kontuan hartu behar da gaurko gobernantza globala 1945eko botere banaketaren eta harreman ekonomikoaren isla dela eta egungo egoera oso bestelakoa dela.

Nazioarteko sistema multipolarra aldarrikatzearekin bat II. Mundu Gerraren irabazleen neurri sortutako Nazioarteko Diru Funtsa, Munduko Bankua edo Nazio Batuen Erakundea (NBE) bezalako instituzioen erreforma da BRICSen agendan dagoen helburu nagusieneratikoa. Norabide horretan Shanghain

G7 taldearen kohesio mailatik oso urrun egongo da BRICSen foroa. Komunean duten lotura Mendebaldearen aurkako jarrera da, baina kohesio estrategikoa eraikitzea zaila izango dute

egoitza duen eta lehen aipatutakoen alternatiba izan nahi duen Garapenerako Banku Berria -GBB- sortu zuten kideek. Banku horrek bide xumea izan du, izan ere, garapen proiektuetan 33 mila milioi dolar eskas finantzatu ditu orain arte. Eta etorkizunerako perspektibak ere ez dira oso onak, izan ere, Errusiaren aurkako zigorrek zaildu egingo dute GBBaren ibilbidea.

BRICSen agendako beste puntu garrantzitsua da estatuen arteko merkataritza harremanen desdolarizazioan sakontzea. Esan gabe doa estrategia horren balizko arrakasta dolarrarentzat eta AEBetako ekonomiarentzat benetako eztanda izango litzatekeela.

Mendebaldeak bultzatutako G7 -BPG handiena duten zazpi herrialdeek osatutako- bezalako foroaren ibilbide ma-



MIKEL ZUBANO
EKONOMIALARIA

kurak, G20 taldearen azken bileraren porrotak eta NBERen operatibitate ezak BRICS blokeari Hegoalde Globalaren lidergoa bereganatzeko bidea errazten diote.

Nolanahi ere, BRICS blokea ez da homogeneoa, interes ugari daude partaideen artean eta sarritan interes horiek kontrajarriak dira. Hedapen berriak egoera hori areagotu egingo du, zalantzarik gabe. G7 taldearen kohesio mailatik oso urrun egongo da hamaika estatu kideen foroa, esate baterako. Komunean duten lotura, batez ere, Mendebaldearen aurkako jarrera da. Baina kohesio estrategikoa eraikitzea zaila izango dute, kontuan hartuta bertan Txina eta India bezalako herrialde etsaituak badirela, edota oso AEB zaleak diren Saudi Arabia edo Emirerriek Errusia edo Txinarekin adostu beharko dutela.

BRICS blokearen aro berriak mundu multipolarren hasiera irudika lezake, baina ikusteko dago bide horrek nahikoa indar izango ote duen egungo AEBen hegemonia eta instituzio multilateral ofizialak zalantzan jartzeko. Hedatuko den BRICSeko estatu gehienetan sistema autokratikoak izatea ez da aitzakia foro honek gaur egun sakoneko erreforma eskatzen duen Nazio Batuen erdua aldatzeko tresna baliagarri gisa irudikatzen. Izan ere, munduko eredu politikoa eta ekonomikoa bidegabea izateaz harago, seguritate, pobrezia edota larrialdi klimatikoa bezalako premiazko arazoei aurre egiteko disfuntzionala da. ●